

V - BESTELAKOAK

URAREN EUSKAL AGENTZIA MEDITERRANEOKO ARROEN BULEGOA

Igay herrian BILVA Bilbao-Valladolid oliobidearen mantentze-lanak egiteko baimen-eskaera

Espediente-zenbakia: AO-A-2016-0106

Eskatzailea: Compañía Logística de Hidrocarburos CLH SA

BILVA Bilbao-Valladolid oliobidearen X:506.818, Y:4.732.409 koordinatuetan oliobidearen babesarako 35 metro inguruko harri-lubeta jarriko da. Obrak Igay herria tartean Baia ibaiaren ezkerreko ertzean egingo dira.

Hori guztia jendaurrean jartzen da, guztiak jakinaren gainean egon daitezen, hogeita hamar eguneko epearen buruan, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta biharamunetik hasita, eskatu den baimenaren ondorioz nolabaiteko kalteren bat hartuko dutela uste dutenek erreklamazioak aurkez ditzaten, ERRIBERA BEITIAko Alkatetzan, edo lurralde-bulego honetan (Forondako Atea 9-11- 01010 Vitoria-Gasteiz). Espedientea han egongo da ikusgai.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko uztailaren 6a

Mediterraneoko Arroen bulegoburua
AZUCENA SALAZAR BAYONA